

# Arautegia

1. Ibilbidean parte hartzeko izen-estatea antolakuntzaren <http://www.beitia.org> webgunearen argibideak jarraituz egitea gomendatzen dugu. Era berean, izen-estatea Urretxu eta Zumarragako Polikiroldegietan eta Ostdadar M. T.-aren egoitzan (Zelai Arizti kultur etxea, Zumarraga) ere egin ahal izango da. Izen-estatea aurrez eginez gero, **10 euro** ordaindu beharko dira eta ibilbideen egunean -irteeran- eginez gero **12 euro**.
2. Ibilaldiaren irteera **goizeko 7:00etatik 7:30ak bitartean** egingo da, Urretxu-Zumarragako Areizaga-Kalebarren plazatik abiatuko delarik.
3. Amaieran mendizale bakoitzari elastiko bana emango zaio.
4. **Ez da inolako sailkapenik egingo. Hau mendi-ibilaldia da —"ibil"—tzeko, ez lasterka egiteko; alegia, ez da lasterketa bat.**
5. Ibilbidea egoki eta zuzen seinalaturik izango da. Ibilbidean zehar zenbait anoa-postu eta kontrol-gune jarriko dira.
6. Zaborrik ez bota ibilbidean, anoa postuetako edukiontzia erabili. Ibilbide markak egun berean jasotzen ditu antolakuntzak.
7. Ibilaldiaren amaieran, nahiko luketen mendizale guztiekin Urretxuko Ederrena frontoiko dutxak erabiltzerik izango dute.
8. **Gomendagarria da federaturik egotea. Antolakuntzak ez du mendi-ibilaldiaren baitan zein horren ondorioz mendizaleei gerta lekizkiekeen istripurik bere gain hartuko. Parte-hartzaileek edozein indemnizazio hartzeari uko egingo diote.**
9. Ezinbestekoa bada, antolatzailleek ibilaldia edozein unetan aldatu edo eten ahal izango dute.
10. Ibilaldian parte hartzen duten adingabekoek pertsona heldu baten ardurapean ibili beharko dute ibilaldia egiten duten bitartean.
11. **Zakurrik badaramazu, lotuta eraman beharko duzu, bidean dauden baserrietako bestelako animaliekin eta ibilbidean dauden lagunekin arazorik sortu ez dadin. Antolakuntzak ez du bere gain, partehartzaileek daramatzaten zakurren jardunaren ondorioz ibilbidean zehar hirugarrenei eginik gerta litezen kalteen aurrean, inolako erantzukizunik hartuko, soilik zakurren jabeek zakurrek egindakoaren erantzule izan beharko dutelarik** [Gipuzkoako Mendien 7/2006 Foru arauaren 62.2c artikulua].
12. Arautegi honetan ez aurreikusitako guzia Antolakuntzak zuzendua izango da.
13. **Martxa honetan izen-estateak idatzitako arau guztiak automatikoki onartzen direla ekartzen du berekin.**
14. Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten dizugu Iñaki Beitia Mendi Martxari ematen dizkiozun izaera pertsonaleko datuak isilpean tratatuak izango direla eta Ostdadar Mendi Taldearen titularitateko fitxategi batean, Datuak Babesteko Erregistro Orokorean zuzenki erregistratua dagoena, sartuak izango direla. Izen-estatean jasotako datu pertsonalak soilik parte-hartzaileen identitatea kudeatzeko erabiliko dira, eta ez da bestelako ezein datu-hartzailerik izango. Era berean, jakinarazten dizugu zure datuen eta argazkien sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkaritza eskubideak balia ditzakezula, DBLO-ren arabera, helburua adierazten duen idatzia eta zure NAN edo antzeko dokumentu baten fotokopia ondoren adierazitako helbidera bidaliz: OSTADAR MENDI TALDEA. Zelai Arizti kultur etxea. E-20700 Zumarraga (Gipuzkoa).

## Oharrak

- Behar bezalako mendiko botak ere eramatea gomendagarria da.
- **Bidean topatuko dituzun baserrietako soroak, baratzak eta animaliak errespeta itzazu** eta Antolakuntzak zehaztutako bidetik ibil zaitez. **Ingurumena zaindu eta sortzen duzun zaborra anoa-postuetan diren zakarrontzietara bota ezazu. Era berean, birzikla ezazu, birziklagarri dena dagokien edukiontzietan botaz. Ingurumenaren kontua guztioi dagokigu-eta.**
- Webgune honetan idatzi ditugun **aholkuak** jarrai itzazu.

## Normativa

1. Para participar en la marcha se recomienda realizar la inscripción siguiendo las instrucciones del sitio web de la organización <http://www.beitia.org>. A su vez, la inscripción se podrá realizar en los Polideportivos de Urretxu y Zumarraga o en la sede de Ostadar M. T. (Zelai Arizti kultur etxea. Zumarraga). Realizando la inscripción con antelación, se han de abonar **10 euros** y en caso de inscribirse el mismo día de la marcha -en la salida- **12 euros**.
2. La salida de la marcha se realizará **desde las 7:00 hasta las 7:30 horas de la mañana**, desde la plaza Areizaga-Kalebarren de Urretxu-Zumarraga.
3. En la llegada se entregará a los participantes su correspondiente camiseta de recuerdo.
4. No se establece ningún tipo de clasificación. Esta es una marcha de montaña, no una carrera.
5. El recorrido estará debidamente señalizado. Habrá varios puestos de control y avituallamiento a lo largo del mismo.
6. Mantén limpio el recorrido, utilizando los contenedores en los puestos de avituallamiento. Toda la señalización del recorrido es retirada por la organización el mismo día.
7. Al final de la marcha habrá servicio de duchas en el Frontón Ederrena de Urretxu.
8. **Es aconsejable estar federado. La organización no se hace responsable de accidentes ocurridos a los participantes en la marcha o a consecuencia de la misma, renunciando éstos a cualquier tipo de indemnización.**
9. En caso de fuerza mayor la organización podrá alterar o suspender la marcha en cualquier punto del recorrido.
10. Los menores que participen en la marcha deberán ir bajo la responsabilidad de un adulto a lo largo del recorrido.
11. **Si llevas perro, éste deberá permanecer atado a lo largo del recorrido, para evitar problemas con el resto de animales de caseríos, así como con los participantes del recorrido. La Organización no se hace responsable de los daños o perjuicios que los perros acompañantes de los participantes en el recorrido puedan provocar a terceros, siendo sus dueños los únicos responsables de los mismos** [Artículo 62.2c de la Norma Foral 7/2006 de Montañas de Gipuzkoa].
12. Todo aquello no previsto en este reglamento será resuelto por la Organización.
13. **La inscripción en la marcha implica la aceptación automática de todas las normas de este reglamento.**
14. En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal 13/1999 de 15 de Diciembre (en adelante LOPD), se le informa que los datos

personales que mediante la inscripción facilite a Iñaki Beitia Mendi Martxa serán tratados confidencialmente y a su vez incorporados a un fichero automatizado de datos, debidamente registrado en el Registro General de Protección de Datos, propiedad de Ostadar Mendi Taldea cuya única finalidad es la de gestionar la identidad de los participantes en la marcha de montaña, no existiendo más destinatarios.

Asimismo le informamos de la posibilidad de que ejerza, en los términos establecidos en la LOPD, los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición de las fotografías publicadas y datos de carácter personal, dirigiendo un escrito al efecto acompañado de una fotocopia de su DNI., o documento análogo a: OSTADAR MENDI TALDEA. Kultur Etxea. Legazpi kalea 7. E-20700 Zumarraga (Gipuzkoa).

## Notas

- De la misma manera, recomendamos llevar botas y buen calzado para el total de la travesía.
- **Respeta los prados y huertas, así como los animales de los caseríos que te encuentres en el camino** y camina por los caminos marcados por la Organización. **De la misma forma, recicla todo aquel material reciclable y dépositalo en los contenedores de los puntos de avituallamiento habilitados para ello. Cuida del Medio Ambiente: es cosa de todos.**
- Sigue los consejos que hemos colocado en el [apartado de consejos](#) de esta web.